7211

EBAZPENA, 2008ko abenduaren 11koa, Euskadiko Prezioen Batzordearena, Funicular Artxanda SA enpresak burutzen duen hiri–garraioaren zerbitzua emateko, Bilboko Udalak aurkeztutako 2009ko ekitaldirako tarifak onartzen dituena.

Euskadiko Prezioen Batzordeak, 2008ko abenduaren 11n egindako bileran, hartu zuen erabakia argitaratzen da ondoren, guztiek jakin dezaten.

ERABAKIA

Bilboko Udalak Funicular Artxanda SA enpresak burutzen duen hiri-garraioaren zerbitzua emateko tarifak berrikusteko eskabidearen espediente aurkeztu zuen Industria, Merkataritza eta Turismo Sailean, 2008ko azaroaren 7an.

Funicular de Artxanda SA enpresaren zerbitzu publikoa dagozkion tarifak prezioak kontrolatzeko araudiari loturik daude «autonomi erkidegoko prezio baimenduak» modalitatean, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1993ko otsailaren 26ko Aginduaren (martxoaren 12ko BOE, 61. zenbakia) 3. eranskinaren eta ekainaren 7ko 7/1996 Erregeren Lege–Dekretuaren (ekainaren 8ko BOE, 139. zenbakia) 16.4 atalaren arabera.

Euskadiko Prezioen Batzordeak eskumen hori abuztuaren 30eko 230/1988 Dekretuaren (irailaren 20ko EHAA, 175. zenbakia) eta 1988ko irailaren 21eko Aginduaren (urriaren 4ko EHAA, 185. zenbakia) indarrez darabil. Organo horri dagokio eskatutako tarifak lotuta daudeneko prezioen araudi orokorrari (zeinari lotuta baitaude) egokituta dauden erabakitzea, prezioen politikarako neurriei buruzko urriaren 28ko 2695/1997 Errege Dekretuari eta hori garatzeko xedapenei jarraituz.

Aipatu arauak inflazioari eustekoak eta ekonomiaoreka jakin bat lortzekoak dira. Gainera, ondasunen eta zerbitzuen eta, bereziki, bizitza-kostuarekiko produktu estrategikoen prezioak eta monopoliopean edota konpetentziarik gabe egiten diren produktuen prezioak osatzeko mekanismoak zaintzekoak ere badira.

Aurreko lerroaldeetan aipatzen den eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak berriki emandako jurisprudentziak berretsi du (Epaiak: maiatzaren 12ko 342/97; 343/97 eta 344/97; maiatzaren 23ko 284/97; uztailaren 18ko 558/97 eta urriaren 10eko 726/97); uztailaren 30eko 618/97; urtarrilaren 23ko 32/98 eta 33/98; otsailaren 5eko 98/98; martxoaren 20ko 250/98, 257/98 eta 258/98; martxoaren 26ko 272/98 eta otsailaren 22ko 145/99).

7211

RESOLUCIÓN de 11 de diciembre de 2008, de la Comisión de Precios de Euskadi, por la que se aprueban las tarifas presentadas por el Ayuntamiento de Bilbao para el servicio de transporte urbano realizado por el Funicular de Artxanda, S.A., para el año 2009.

La Comisión de Precios de Euskadi, en su reunión del día 11 de diciembre de 2008, adoptó el Acuerdo que se transcribe a continuación para general conocimiento.

ACUERDO

Resultando que, con fecha 7 de noviembre de 2008, el Ayuntamiento de Bilbao presentó solicitud de revisión de tarifas del servicio de transporte urbano realizado por el Funicular de Artxanda, S.A.

Considerando que, las tarifas correspondientes al servicio público del Funicular de Artxanda, S.A. están sujetas a la normativa de control de precios en la modalidad de «precios autorizados de ámbito autonómico», a tenor del anexo 3 de la Orden Ministerial de Economía y Hacienda de 26 de febrero de 1993 (BOE n.º 61, de 12 de marzo), y del artículo 16.4 del Real Decreto-Ley 7/1996, de 7 de junio (BOE n.º 139, de 8 de junio).

Considerando que, la Comisión de Precios de Euskadi ejerce dicha competencia en virtud del Decreto 230/1988, de 30 de agosto (BOPV n.º 175, de 20 de septiembre), y de la Orden de 21 de septiembre de 1988 (BOPV n.º 185, de 4 de octubre), correspondiendo a este órgano enjuiciar si las tarifas solicitadas se adecuan a la normativa general de precios a que están sujetas, conforme al Real Decreto 2695/1977, de 28 de octubre, sobre medidas relativas a política de precios y sus disposiciones de desarrollo.

Considerando que, las normas mencionadas están dirigidas a contener la inflación y conseguir un cierto equilibrio económico, y que también tienen su justificación en la necesidad de vigilar, los mecanismos de formación de los precios de diferentes bienes y servicios, y muy particularmente, de los productos estratégicos respecto del coste de la vida y de aquellos que se formen bajo condiciones monopolísticas o de ausencia de competencia.

Considerando que, la competencia a que se hace referencia en los Considerandos anteriores ha sido refrendada por la reciente jurisprudencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (Sentencias: n.º 342/97; n.º 343/97 y n.º 344/97, de 12 de mayo; n.º 284/97, de 23 de mayo; n.º 558/97, de 18 de julio y n.º 726/97, de 10 de octubre; n.º 618/97, de 30 de julio; n.º 32/98, n.º33/98, de 23 de enero; n.º 98/98, de 5 de febrero; n.º 250/98, n.º 257/98 y n.º 258/98, de 20 de marzo y n.º 272/98, de 26 de marzo y n.º 145/99, de 22 de febrero).

2009 urterako aurkeztu diren tarifak berrikusteko espedientea aztertu ondoren, tarifak nahikotzat jotzen dira eta zerbitzua emateagatiko kostuen egituraren barruan sartzen diren kontzeptuetara egokiturik daudela uste da.

Euskadiko Prezioen Batzordea egituratzen duen abuztuaren 30eko 230/1988 Dekretua eta 1988ko irailaren 21eko Agindua, eta orokorrean eta bereziki aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aztertu ondoren, Euskadiko Prezioen Batzordeak, gehiengoz, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.– Funicular de Artxanda SA enpresaren zerbitzuaren 2009rako tarifak onartzea, Balio Erantsiaren Gaineko Zerga barne dela. Hona hemen kontzeptuak eta zenbatekoak:

– Txartel arrunta	0,90 euro.
– Txartel murriztua	0,28 euro.
– Creditrans (bidaia)	0,54 euro.

Funikular-aldaketarekin Creditrans bidaia Creditrans tarifa arrunta % 20 murriztearen zenbatekoa da.

Bigarrena.– Erabaki honek 2009ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Ebazpen honek administrazioko bidea amaitzen du; beraz, bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi eta hilabete biko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 11.

Euskadiko Prezioen Batzordeko lehendakaria,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.

Considerando que, una vez analizado el expediente de revisión de las tarifas presentadas para el año 2009, se consideran suficientes y ajustados a los conceptos incluidos dentro de la estructura de costes de prestación del servicio.

Visto el Decreto 230/1988, de 30 de agosto y la Orden de 21 de septiembre de 1988, así como las disposiciones de carácter general y particular aplicables al caso, por mayoría de los miembros presentes, acuerda:

Primero.– Autorizar las tarifas del servicio del Funicular de Artxanda, S.A., para el año 2009, en los conceptos y cuantias, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido y el Seguro Obligatorio de viajeros, que a continuación se indican:

– Billete ordinario	0,90 euros.
– Billete reducido	0,28 euros.
– Creditrans (viaje)	0,54 euros.

El Creditrans con transbordo es la cuantía resultante de reducir un 20% la tarifa Creditans ordinaria.

Segundo.– El presente Acuerdo entrará en vigor el 1 de enero de 2009.

Contra esta Resolución que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de esta jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2008.

El Presidente de la Comisión de Precios de Euskadi,
JOSÉ LUIS MONTALBÁN MONGE.